

## Bestelako Xedapenak

### KULTURA SAILA

5291

EBAZPENA, 2010eko urriaren 7koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, zeinen bidez hasiera ematen baitzaio Antzuolako (Gipuzkoa) Amilleta baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari, bai eta espedientea jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko aldiari ere.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Antzuolako Amilleta baserriak daukan kultura-interesa aztertutik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkeztutiko ebazpen-proposamenari jarraituz, honako hau

#### EBATZI DUT:

**Lehenengoa.**– Hasiera ematea Amilleta baserria, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari, I. eranskineko mugaketarekin eta II. eranskineko deskripzioarekin bat etorritz.

**Bigarrena.**– Jendaurrean jartzea Amilleta baserria Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedientea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 84. eta 86. artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai (Donostia kalea, 1, Gasteiz).

**Hirugarrena.**– Ebazpen hau interesdunei, Antzuolako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskera eta Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari

## Otras Disposiciones

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

5291

RESOLUCIÓN de 7 de octubre de 2010, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Amilleta sito en Antzuola (Gipuzkoa).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta el Caserío Amilleta, sito en Antzuola y atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

#### RESUELVO:

**Primero.**– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Amilleta, conforme a la delimitación que figura en el anexo I y la descripción obrante en el anexo II.

**Segundo.**– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, del Caserío Amilleta para que, durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián, n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

**Tercero.**– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Antzuola y a los Departamentos de Cultura y Euskera y Movilidad y Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, así como al Departamento de Medio Ambiente, Plani-

jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko epean alegatu ahal izateko eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkezteko.

**Laugarrena.**— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak ebazpenaren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 7a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.

## I. ERANSKINA

### MUGAKETA

#### a) Mugaketaren deskribapena.

Mugaketak eraikina bera eta ingurumaria hartzen ditu. Horrela, eremuak muga hauek ditu:

Ipar-ekialdean, baserriaren iparraldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 35 metrora dagoena.

Hego-ekialdean, lerro bat, baserriaren ekialdetik 65 metrora eta hegoaldeko muturretik 50 metrora, eta nabarmen paraleloa Maltzaga-Zumarraga burdinbide zaharraren zabaldegiarekiko, trenbideko azpipegitura-kanpoaldeko lubeta jarraituta.

Hego-mendebaldean, baserriaren mendebaldeko fatxadarekiko lerro paraleloa, baserritik 50 metrora.

Eta, azkenik, ipar-mendebaldean, baserriaren fatxadarekiko lerro paraleloa, fatxada horretatik 20 metro-ra.

#### b) Mugaketaren justifikazioa.

Mugaketa hau proposatu da Amilleta baserriaren inguruak duen balioa babestu behar delako, ingurumenaren aldetik zein ikusteko duen balioaren aldetik. Baserrira malda handia duen mendi-hegal batean kokatutako dago, Antzuolako Basalde auzoan. Ingurunearen mugaketa beharrezkoa da katalogatutako ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko, eta berarekin batera dakar baserriaren inguruko lurak eta eraikinerako sarbidea babestea, baserriaren berezko izaera gordetze aldera. Horregatik, mugaketak baserriaren eraikina bera ez ezik haren ingurunea ere hartzen du.

ficación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

**Cuarto.**— Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de octubre de 2010.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,  
ANTONIO RIVERA BLANCO.

## ANEXO I

### DELIMITACIÓN

#### a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí, y por otro, el entorno que lo rodea. Así el área de la delimitación queda definida con los siguientes límites:

Al Noreste una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 35 metros de distancia.


Al Sureste una línea distante 65 metros del extremo Este del caserío y 50 metros del extremo Sur, y sensiblemente paralela a la explanación del antiguo Ferrocarril Maltzaga-Zumarraga, siguiendo el borde exterior del terraplén de la infraestructura ferroviaria.

Al Suroeste una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 50 metros de distancia.

Y, finalmente, al Noroeste, una línea paralela a la fachada del caserío trazada a 20 metros de distancia.

#### b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del entorno del caserío Amilleta, situado en una ladera de fuerte pendiente del barrio Basalde de Antzuola. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.



ESKALA / ESCALA

30 15 0 30 Meters



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**



KULTURA SAIA  
Kultura Ondarearen Zuzendaritza  
Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Dirección de Patrimonio Cultural  
Centro de Patrimonio Cultural

Planoa / Plano:

AMILLETA BASERRIAREN  
MUGAKETA

Lurraldea / Territorio:

GIPUZKOA

Data / Fecha:

11/02/2010

Udalerría / Municipio:

ANTZUOLA

Eskala / Escala:

1:2.000

## II. ERANSKINA

## DESKRIBAPENA

Familia bakarreko baserria, oinplano angeluzuzeneko, 33,5 x 23,5ekoa. Egurrezko estalkia, hodi-teilez egin, 3 isurkikoa, gailurra hego-ekialdera jotzen duen fatxada nagusiarekiko elkarzut duena. Bi solairu eta ganbara ditu. Horma perimetralak landu gabeko harriz eginak, eta eskantzuak harlanduzkoak. Fatxada nagusiak antolaketa simetrikoa du; beheko solairuan, erdian, erdi-puntuko bi arku daude; arku batetik atondora sartzen da eta bestetik kortara. Lehenengo solairuan sei leiho-hutsarte daude, silarriz hesituta. Hastialean (goiko aldean) oholtza labur bat ikus daiteke, alde hori ixten duena. Hego-mendebaldeko fatxadak zazpi leiho eta ezaugarri desberdinetako balkoiak ditu, beheko solairuan, eta beste zazpi leiho-bao lehenengo solairuan. Lurraren desnibela aprobetxatuz, soto-upategi bat dauka, non zenbait saietara irekitzen diren; azken horiek ere hego-mendebaldera jotzen dute. Ipar-ekialdeko fatxada oso baxu dago lurraren desnibelarengatik, eta handik sotora edo lastategira sartzen da zuzenean. Ipar-mendebaldeko fatxadak leiho-bao bat dauka.

Eraikin honen barneko egitura suhesi batean bermatzen da, hego-ekialdeko fatxada nagusiarekiko elkarzut; suhesiak bi zati simetrikotan banatzen du eraikina. Egurrezko egiturak fatxadetan eta erdiko suhesi horretan bermatzen dira. Bi erdien egiturak pieza bakarreko zortzi zutabe-ardatzetan bermatzen dira; horiek habe, beso eta gapirioekin ahokatuta, baserri honen teilatuari eusten diote. Beheko solairura argi naturala sartu dadin, argizulo bat dauka, forma tronkopiramidala duena. Ipar-mendebaldeko azken hormarte XIX. mendean eginiko zabalkuntzean egin da. Horma zaharraren gainean, gaur egun barruan dagoena, XVI. mendeko arku zorrotza irekitzen da.

Amilleta XVI. mendeko baserria da. Garai horretako ipar-mendebaldeko murrua eta upeltegia gorde ditu. Beranduago, erabat berregin zen, XVIII. mendean; eta garai hartakoak dira, hain zuzen, barruko murru eta egitura gehienak.

## ANEXO II

## DESCRIPCIÓN

Caserío unifamiliar de planta rectangular de 33,5 x 23,5. Cubierta de madera en teja canal a 3 aguas con cumbreira perpendicular a la fachada principal de orientación SE. Consta de dos plantas y desván. Muros perimetrales de mampostería, con esquinales de sillería. La fachada principal, de composición simétrica, presenta en su planta baja dos arcos de medio punto centrados que dan acceso al vestíbulo uno de ellos y a la cuadra el otro. En la primera planta posee seis huecos de ventana recercada de piedra sillar. En el hastial es visible un corto tablazón que lo cierra. La fachada SW presenta siete huecos de ventanas y balcones de distintas características, en la planta baja, y otros siete huecos en la primera planta. Aprovechando el desnivel del terreno posee un sótano-bodega en el que se abren algunas saeteras también con orientación SW. De la fachada NE, muy baja debido al desnivel del terreno, se accede al desván o pajar directamente. La fachada NW contiene algún hueco de ventana.

La estructura interior de este edificio se apoya en un muro cortafuegos perpendicular a la fachada principal SE que divide el edificio en dos mitades simétricas. Las estructuras de madera se apoyan en las fachadas y en este muro medianil cortafuegos. Las estructuras de las dos mitades se apoyan en ocho postes-ejes enterizos que ensamblados con las vigas, tornapuntas y cabrios, sostienen la techumbre de este caserío. Para la entrada de luz natural a la planta baja posee una lucerna con cuerpo de forma troncopiramidal. La última crujía del lado NW corresponde a una ampliación posterior del silo XIX. Sobre el muro antiguo, hoy en el interior, se abre un arco apuntado datado en el silo XVI.

Amilleta es un caserío original del siglo XVI, época de la que mantiene parte del muro interior NW y la bodega. Posteriormente fue rehecho totalmente en el siglo XVIII, época a la que corresponde la mayor parte de los muros y estructuras interiores.